

KOTXEA EZ EDUKITZEA AUTOMOBILAREN AROAN

Gauza ezaguna da, garapenak zuzenki ekarritako ondorio batzuk, garapenaren beraren baino areago, atzerapenaren fruitu dirudite. Alde horretatik, garraio erraztasunak, erabilpenaren orokortasunak eta automobilaz nolabait disfrutatzek, erabaki dute —erlatiboki behinik behin— herriaren zenbait sektoreren isolatze handiagoa.

Horrela, garraio publikoko linea batzuk, herri txikietan batez ere kentzen joan direnak, defizitarioak edo ez errentagarriak egin ditu automobilak.

Lehen, orain hamar edo hamabost urte, hiriarteko zirkuitu garrantzitsuetatik kentzen zituzten autobus zaharrak, herri eta herriskak eskualdeko hiriburuekin lotzen jarraituz luzatzen zuten beren bizia. Orain mundu guztiak kotxea du, eta zentzurik ez du egun eta ordu jakin bat itxaroteak, jar dezagun adibidez, Tolosara edo Gernikara jaisteko, edozeinengana jodezakezunean, normalean hamabost edo hogeita minitu baino gehiago irauten ez duen bidaia egiteko.

Baina gure zalantzak badiugu, pertsonaren mugikortasuna aztertuko balitz, adin

batetik gorako emakumeena batez ere, emaitza ez ote zen izango zenbait kasutan eskastu egin dela, orain hurreman gutxiago dituela bere herriska edo herritik kanpo lineako autobus zaharrak funtzionatzen zuenean baino; izan ere, ez da egia mundu guztiak kotxea duela edo familian edukita ere, ez da dirudien bezain erraza hartaz baliatzea, gidaria, senarra, semea edo iloba zure esku jartzea, azken finean behar beharrezkoak eta benetan premiazkoak ez diren bidaietarako.

Gerta liteke gaur eguneko komunikazioa, hain erraza izateagatik, ezinezko gertatzea zenbait pertsonentzat. Baliteke ere pertsona horiek batetik bestera ibiltzeko behar subjektiboa ez sentitzea, baina objektiboki, kasu askotan, ziur gaude bitarteko garraio pribatuen erabilgarritasun teorikoak, errentagarriak ez izateagatik publikoak kentzearekin batera, zenbait pertsonen isolamendua areagotu egin duela.

Noizbait batetik bestera joateko bitartekoak hipotetikoak izango dira besterik gabe; gehienetan, ordea, gertatuko da, inor ez molestatu nahi izatea, dendak ikusteko, lagun bati bisita egiteko edo paseo bat emateko.

Arazo horri aurre egiteko Udaletxe batzuk erabaki desberdinak hartu dituzte. Horietako bat, erabilpen asko izan ditzakeen automobila erostearena da, eta hainbat erabilpenen artean, hiriarekin edo eskualdeko hiriburuarekin beste komunikazio biderikezduten pertsona horien ziurtatzea. Automobila gidatzeko pertsona boluntarioak txandakatzen dira, beharrei eta noski erabilgarritasunei lotutako ordutegia betez.

Beste batzutan, garrantzi handiagoa duten Udaletxetan, mikrobus bat erostea erabaki dute, haren zerbitzuan baina ez eksklusiboki, udaletxeko enplegatu bat ja-

rriz. Mikrobusak, eskoletako zerbitzua ziurtatu lezake eta, aldi berean, lineako kotxe bezala erabili liteke, bereziki, zaharrentzat antolatzen diren eskurtsioetan.

Era askotako irtenbideak daude. Edozein modutara, interesgarria litzateke era kritiko batez berrikustea automobil pribatuak garraioar-loko premiak bete ote dituen; erantzuna ezezkoa izatekotan, badaude beste bide zenbait, derrigorrez garestiak ez direnak, pertsona asko isolamendutik ateratzeko, hain zuzen ere, kotxearen normalkuntzak inkomunikaturik utzi dituenak.

